El Ayuntamiento podrá establecer volantes de control a cumplimentar mediante las oportunas inspecciones realizadas por los técnicos muni-

ko edota zabalkuntzako obra horien ondoko burutzapen faseetan egin-go dira:

1. Zimentazioaren mailakatzea.
2. Beheko solairuaren sabaia.
3. Azken solairuaren sabaia
4. Obraren amaiera.

#### 276. artikulua.—*Publizitatea*

1. Nahitaezkoa izango da obretan, ondo ikusten den tokian, egiten ari diren obra horietarako bidezko lizentzia eskuratu dela adierazten duen udalaren eredu benetakotzailea erakustea. Lan horiek ezin dira hasi harik eta eredu hori jarri arte eta hori eragozpenik gabe ikusiko da herri bidetik.

2. Lizentziaren emakidaren eredu benetakotzaileak inolako dudarik gabe adieraziko du emakidaren data. Edozein norbanakok Udalera joan eta obrak geldiarazteko eskatzeko eskubidea du baldin eta obrak burutzen ari badira eta arestian deskribatu den eredu hori ez badute edota horien lizentzia iraungita badago.

#### 277. artikulua.—*Lizentziaren iraungitasuna*

Ondoko kasuetan, obra lizentziak iraungita geldituko dira:

1. Lizentzia ematen dela jakinaraztean adierazitako epeetan hasten ez direnean obrak.

2. Obrak ondoren adierazitako epeetan bukatzen ez direnean; zentzuzko luzapena ere emango du Korporazioak, baldin eta aurretiaz eska-tu eta arrazoitzen bada.

3. Baimenean azalduko baldintzak urratzen direnean (besteak beste, urbanizatu beharra ez betetzeagatik).

4. Eskaeragileak etsi egiten duenean, Alkatetzari zuzendutako idazki baten bidez.

5. Lanak ehun eta laurogei (180) egutegiko egunetik gorako epean eteten direnean.

Hauexek izango dira obrak bukatzeko epeak:

Emandako obra lizentzia guztietan, orokorrean, 6 hilabeteko epea egongo da gehienik obra horiek hasteko, eta 24 hilabetekoa, berriz, obrak bukatu eta Udal Erregistro Orokorrean aurkezteko lehenengo okupazioko lizentzia lortzeko behar diren agiri guztiak.

Obra txikiak, tramitazio laburtuko obrak, berritze edo zabaltze edo finkatze obrak direnean (edota lizentzia behar duten gainerako egintza guztiak, solairu berriko obrak izan ezik), obra lizentziak 3 hilabeteko epea izango du gehienik lanak hasteko, eta 6 hilabetekoa, berriz, horiek bukatu eta Udal Erregistro Orokorrean aurkezteko lehenengo okupazioko lizentzia lortzeko behar diren agiri guztiak.

Epe horiek ez betetzeak lizentziaren iraungitasuna ekarriko du; eta berriro eskatu beharko da, betearazi bako obra zatiari dagozkion eskubide edo tasak berriro ordaindu ondoren, obrak hasi edo jarraitzeko.

Epe horiek, berriz, eskaeragileari lizentzia lortu duela jakinarazten zaizkion egunetik hasiko dira zenbatzen.

Adierazitako epe partzialak eta guztizko epeak errespetatuz, Udalak obra burutzeko epe partzialak ezarri ahal izango ditu eraikuntzaren fase desberdinak osatzeko, baldin eta hori bidezkoturik badago obra bereziak izateagatik. Adierazpen horiek ere lizentziaren baldintzat hartuko dira.

#### 278. artikulua.—*Mentsak*

1. Udal zerbitzu teknikoek lizentziaren eskabidean edo horren agerian antzemango dituzten akatsak konpontzeko modukoak edo ongizetazkoak izan daitezke.

2. Akats ongiezinak dira konpontzeko proiektuan funtsezko aldarazpenak ezarri behar direnean eta, edozein kasutan, ondoko hauek:

- a) Obraren kokaera oker adieraztea.
- b) Plangintzak kokaera horretarako haizu ez dituen erabileretarako obrak proiektatzea.
- c) Arauetan ezarri diren bolumen, garaiera, solairuen kopuru eta fondo eraikigarrien indizeak gainditzea.
- d) Lerrokadurak eta sestrak ez betetzea.
- e) Nahitaezko lagapenerako lurak ez betetzea.
- f) Aparkaleku plazen erreserbari buruzko eskakizunak ez betetzea.
- g) Barruko patioetan ordenantzetan ezarri diren azalera baino txikiagoak proiektatzea.

Akats ongiezinen izaerakoak egoteak lizentzia ukatu egingo da.

cipales en las siguientes fases de ejecución de las obras de nueva planta y/o ampliación:

1. Enrase de cimentación.
2. Techo de planta baja.
3. Techo de la última planta.
4. Finalización de la obra.

#### Artículo 276.—*Publicidad*

1. Será obligatoria la exhibición, en lugar bien visible de las obras, del modelo municipal acreditativo de haber obtenido licencia apta para los trabajos que se estén realizando. Estos no podrán dar comienzo hasta tanto se encuentre emplazado dicho modelo, que habrá de poder ser contemplado sin estorbo desde la vía pública.

2. El modelo acreditativo de la concesión de la licencia expresará inequívocamente la fecha de su concesión. Cualquier particular podrá ejercer la acción pública ante el Ayuntamiento solicitando la paralización de obras que estén en curso sin disponer del modelo descrito, o cuya licencia esté caducada.

#### Artículo 277.—*Caducidad de licencia*

Las licencias de obras caducarán:

1. Por no haber comenzado las obras en los plazos que se indican en cada caso a partir de la fecha de la notificación de la concesión de la licencia.

2. Por no haber concluido las obras en los plazos que se indican en cada caso, y en el de una prórroga, que previa solicitud y exposición pueda conceder la Corporación.

3. Por haber infringido las condiciones expuestas en la licencia, entre ellas el incumplimiento de la obligación de urbanizar.

4. Por desestimación del solicitante en escrito dirigido a la Alcaldía.

5. Por suspensión de los trabajos por un período continuado superior a los ciento ochenta (180) días naturales.

Se indican a continuación los plazos citados:

Toda licencia de obras concedida tendrá en general un plazo máximo de seis (6) meses para el comienzo de las mismas y veinticuatro (24) meses en total (desde la comunicación de la concesión de la licencia), para finalizar y presentar en el Registro General Municipal toda documentación precisa para la obtención de la licencia de cambio de uso o de primera ocupación.

En el caso de obras menores, obras de tramitación abreviada, obras de reforma, ampliación y consolidación y demás actos sujetos a licencia, excepto obras de nueva planta, la licencia de obras tendrá un plazo máximo de tres (3) meses para el comienzo de los trabajos y de seis (6) meses después de comenzados para finalizarlos y presentar en el Registro General toda la documentación precisa para la obtención de la licencia de primera ocupación.

El incumplimiento de estos plazos supondrá la caducidad de la licencia concedida, debiendo ser solicitada, obtenida si procede y pagados de nuevo los derechos o tasas referentes a la parte de obra sin ejecutar, para poder comenzar o continuar las obras.

Los plazos citados contarán a partir de la fecha de comunicación al solicitante de la concesión de licencia.

Dentro del respeto de los plazos parciales y totales indicados, el Ayuntamiento podrá imponer plazos parciales de ejecución de la obra para completar diversas fases de su construcción en aquellos casos justificados de obras especiales. Se incluirán tales indicaciones como condiciones de la licencia.

#### Artículo 278.—*Deficiencias*

1. Las deficiencias que los Servicios Técnicos Municipales observen en la petición de licencia o en su documentación podrán ser subsanables o insubsanables.

2. Serán deficiencias insubsanables todas las que para su rectificación precisen introducir modificaciones esenciales en el Proyecto, y en cualquier caso las siguientes:

- a) Señalar erróneamente el emplazamiento de la obra.
- b) Proyectar las obras para usos no admitidos por el planeamiento en dicho emplazamiento.
- c) Rebasar los índices de volumen, altura, número de plantas, fondo edificable, impuestos por las Normas.
- d) Incumplir alineaciones y rasantes.
- e) No respetar los terrenos de cesión obligatoria.
- f) Incumplir las exigencias en lo que respecta a la reserva de plazas de aparcamiento.
- g) Proyectar patios interiores con superficies inferiores a las fijadas en las Ordenanzas.

El carácter o consideración de deficiencias insubsanables comporta la denegación de la licencia.

Akats ongarriak eskatzaileari jakinaraziko zaizkio eta har hamabost egun izango ditu agiriak aldatzeko eta, zuzenduta, berriz aurkezteko; horrela egin ezean eskabidea iraungi egingo da.

Agiri zuzenduak, eskumena duen gaitasunak sinatuta egongo direnak, bidezko elkargoaren ikusonespenarekin aurkeztu beharko dira.

Manuzko txosten teknikoak gertatu ondoren, emakida edo ukatzeari ekin go zaio; bata zein bestea arrazoituta egingo dira, bide horretatik jotzea aholkatzen duten gertakizunak eta oinarriak aipatuz.

Lizentziaren ebazpenerako ekintzek ondore horietarako eskatzaileari dagozkion errekurtsioak bildu beharko ditu; halaber, errekurtsioak jartzeko epeak adieraziko dira.

Lizentziak, ematen baldin bada, beren beregi bilduko du indarreko lege-riaren eta arautegi honen arabera emakidaren arrazoi izan diren baldintza guztiak bilduko ditu; halaber, indarraldia eta obrak hasteko dagoen gehieneko epea adierazi beharko ditu. Lizentzian eskabide edo emakida bakoitzean ordaindu beharko diren tasen zenbatekoa adieraziko da.

### 279. artikulua.—Burutzapen aginduak

1. Lurzoruari buruzko Legearen 244 eta 246. artikuluetan eta Hiri-gintzako Disziplinari buruzko Araudiaren 10. artikuluen eta hurrengoetan ezarri dena beteko da.

2. Artikulu horiek bat etorritik, Udalak herriko segurtasuna, osasunkortasuna eta apaindura zaintzea helburu duten obrak burutzeko agindu ahal izango du.

3. Lehenengo eta behin, agindua eman aurretik, udal arkitektoari txostena egiteko aginduko zaio; txosten horretan, ikuskapena egin ondoren, higiezinaren edo hiriko elementuaren azterlana egingo du, duen bolumena eta burutu beharko den obra mota eta kasuaren premia.

4. Hurre-hurreko arriskua egonez gero, Alkatetza-Lehendakariak neurri zehatzak hartzeko aginduko dio jabeari pertsona eta ondasunen kaltea ekiditeko.

5. Arriskuaren kausa kentzeko premia dela-eta beharrezkoa den kasuetan, Alkate-Lehendakariak berak eman ahal izango du burutzapen agindua, eta jarraian aginduaren berri emango dio Korporazioari.

### Burutzapen aginduak emateko erabakia ahalbideratzen duten inguruabarrak

1. Burutzapen aginduei dagokienez, Lurzoruari buruzko Legeak eta berorren Hirigintza Disziplinari buruzko Araudiak diotena zehatz-mehatz jorratzeko, jarraian sailkatu eta tipifikatu egingo dira agindu horiek ematea ahalbideratzen duten zioak. Dena dela, ondoren azalduko den zerrenda ez da mugatzailea.

a) Pertsona edo ondasunen segurtasuna edonoz arriskuan jar dezakeen egoeraren bat gertatzen denean. Aldez aurretik udal teknikariak arriskua dagoela berretsi egin behar du txostenaren bidez.

Nahiz eraikuntzen osagaien arteko edozeinen taxuketa edo artapen egoerak, nahiz hegaldura, horma, zuhaitz, natur elementu, edo urbanizazio proiektuen elementuenak pertsona fisiko eta ondasunen segurtasuna arriskuan jarritz gero, beharrezkoa izango da egoera hori sortarazi duen kausa ezabatzea. Horretarako, behin delako egoera hori edozein modutan sumatu eta gero, egoki den espedientea hasi beharko da.

b) Ingurugiroko osasuna narriatzen denean, dela ur beltzak isuri direlako arautegiak horretarako ezartzen dituen beharrezkoak bete gabe, dela ur-hornidurarako sarea kutsatu delako, euri edo hondakin urak putzutan bildu direlako, saneamendu edo estolderiaren herriko sareak nahiz sare pribatuak matxuratu, ur banaketarako sarea edozein gunetan matxuratu, herriko taratean zein pribatuetan izan; zabor edo erdi usteldutako hondakinak pilatu direlako, edo antzeko beste edozein kausarengatik; baldin eta aurretiaz, udal zerbitzu teknikoaren txostenean, kausa hori badagoela adierazten bada.

c) Kartel, olana, markesina edo erakusleihoak arautegi honetan ezarri denari egokitzeko burutzapen agindua eman daiteke.

Halaber, burutzapenune aginduak eman daitezke orubeetan eta hiri lurzoruan dauden gainerako lurzatiaren hesiak eta itxurak jartzeko.

d) Noizbehinka beharrezkoa gertatzen da euri urak bideratzea, kanaltxo, isurbide eta urbideak eginez, gainontzekoekiko gaitzak ekiditeko eta toki jakin batzuetan ur gehiegi bildu ez dadin. Hori zio nahikoa izango da burutzapen agindua emateko; gauza bera gertatuko da ura zuzenean herriko bidera botatzen duten teilatuetan ura jasotzeko erretenak ezarri eta horiek udal sareari lotzeko beharra dagoenean.

e) Fatxada eta mehelinek zartadura handiak dituztenean eta orokorrean egoera txarrean daudenean, haien artapen egoera txarra zio nahikoa izango da entokatu, pintatu edo zarpeatu daitezen edo osotasunean txukun daitezen agintzeko. Aurretiaz udal arkitektoaren txostena beharko da.

f) Jabari pribatukoak diren esparruetan urbanizazioaren artapena txarra denean eta horren ondorioz 1, 2 edo 5. ataletan adierazi diren zioak azaltzen direnean, burutzapen agindua emateko arrazoi izango dira; kasu honetan ere udal teknikariaren txostena beharko da.

Las deficiencias subsanables se notificarán al peticionario, que dispondrá de quince (15) días para modificar la documentación y presentar la corregida de nuevo, produciéndose en su defecto la caducidad de la solicitud.

Los documentos corregidos, que serán suscritos por facultativo competente, deberán ser visados por el Colegio Oficial correspondiente.

Una vez emitido el informe técnico preceptivo, la concesión o denegación deberá ser siempre motivada con una referencia de los hechos y fundamentos que así los aconsejan.

El acto de resolución de la licencia deberá incluir los recursos que según la legislación al efecto correspondan al solicitante, con la indicación de sus plazos.

La licencia, en caso de ser concedida, recogerá de forma expresa todas las condiciones con que se haya concedido, en virtud de la legislación vigente y de la presente Normativa, así como el plazo de su vigencia y el plazo máximo de comienzo de las obras, así como indicará el montante de las tasas que deben ser satisfechas para su solicitud y concesión.

### Artículo 279.—Ordenes de ejecución

1. Se atenderán a lo dispuesto en los artículos 244 y 246 del TRLS y artículos 10 y siguientes del Reglamento de Disciplina Urbanística.

2. De acuerdo con dichos artículos 245 y 246 del TRLS y 10 y 11 de dicho Reglamento, el Ayuntamiento podrá ordenar la ejecución de las obras necesarias para el mantenimiento de la seguridad, la salubridad y el ornato público.

3. Se procederá a dictar orden de ejecución previo informe del Arquitecto municipal, en el cual se indicará después de una inspección el estado del inmueble o elemento urbano, volumen y clase de obra que es preciso ejecutar y la urgencia del caso.

4. Si existiera peligro inminente, la Alcaldía-Presidencia ordenará a la propiedad la adopción de medidas necesarias para evitar daños y perjuicios a personas o bienes.

5. En aquellos casos en que lo requiera la urgencia de suprimir la causa del peligro, la orden de ejecución podrá ser dictada por el Alcalde-Presidente, dando a continuación cuenta a la Corporación.

### Circunstancias que posibilitan la adopción de emitir órdenes de ejecución

1. A fin de matizar las indicaciones de la Ley del Suelo y de su Reglamento de Disciplina Urbanística, en lo referente a las órdenes de ejecución, se pretende clasificar y tipificar las causas que pueden originar su emisión, sin que la relación que se indica a continuación tenga carácter limitativo.

a) Siempre que exista una situación que suponga un peligro latente para la seguridad de personas o bienes, previo informe del técnico municipal que ratifique la existencia de dicho peligro.

La seguridad de las personas físicas y bienes, amenazados por el estado de conservación o disposición de cualquier elemento constructivo de edificaciones, vuelo, muros, elementos arbóreos, naturales, o elementos de los Proyectos de Urbanización, originará la necesidad de suprimir el origen de tal situación, y a tal efecto, una vez detectada la situación por cualquier medio, deberá iniciarse un expediente al efecto.

b) Siempre que exista una situación de deterioro de la sanidad ambiental por efecto de vertidos de aguas fecales sin cumplir los requisitos de la Normativa al efecto, por contaminación de la red de distribución de aguas pluviales o residuales, por averías en cualquier punto de la red de distribución de agua, sea en tramo público o privado, almacenamiento de basuras o residuos en descomposición, o por cualquier otra causa parecida apreciada previamente en informe de los Servicios Técnicos Municipales.

c) Se podrá imponer una orden de ejecución para adecuar los carteles, toldos, marquesinas o vitrinas a las disposiciones de la presente Normativa.

Asimismo se podrán dictar órdenes de ejecución para el vallado y cierre de solares y demás parcelas situadas en Suelo Urbano.

d) La necesidad de canalizar las aguas de lluvia, con ejecución de cañales, sumideros y conducciones, a fin de evitar daños a terceros y acumulaciones excesivas en puntos concretos, será motivo suficiente para dictar orden de ejecución, así como la ejecución de canales de recogida de aguas en aquellos tejados que viertan directamente a la vía pública y su conexión a la red municipal.

e) El estado lastimoso de conservación del ornato de fachadas y medianerías, con profundos desconches y mal estado general, serán —previo informe del Arquitecto municipal— motivo suficiente para ordenar su revoco, pintura o blanqueado o su adecentamiento general.

f) La mala conservación de la urbanización en espacios que sean de propiedad privada y que den origen a algunas de las causas de los apartados 1, 2 ó 5 podrán también dar origen a ser dictada una orden de ejecución, previo informe técnico.



g) Edozein arrazoiengatik herri erabilera eta jabarikoak diren gunek finken hesiekin edo bestelako elementu fisikoeekin atzematen badira, Udal Agintaritzak burutzapen agindua eman ahal izango du delako gune hori lehen-go egoera juridikora itzuli dadin.

h) Herriko zerbitzu sareen eta urbanizazio egitasmoen barruko gainontzeko obren aldakuntza eragiten duten obrak aurretiazko lizentziarik gabe burutzen badira, eta udal zerbitzu teknikoaren txostenaren arabera haien nariadura eragiten badute, haiek lehen-go egoerara itzuli beharko dira, eta Udal Agintaritzak horretarako beharrezkoa den burutzapen agindua eman ahal izango du.

i) Ondoko hauek, ondore horietarako gertutu den proiektu teknikoa aurkeztu ondore, burutzapen agindua emateko beharrezko eragingo dute: hiri lurzoruko finken itxurek ondore horretarako ezarri den arautegia betetzen ez dutenean eta plan berezi edo xehekapen azterlanaren bidez definitu ez direnean; kaleen, oinezkoentzako esparru eta ikuspegi eremuen ikuspegi jarraitortasuna hautsi dutenean eta, horren ondorioz, horien inguruan era eskean dabilatzat ibilgailu eta oinezkoen komunikazio arina eragozten dutenean; antzinako perimetro itxiko hormen aztarnak diren jarraitortasun gabeko hormak,; hiri lurzorua ibilgailuen eta oinezkoen trafikoa eragozten duten elementuak eta burutzeko beren beregiko lizentziarik eskuratu ez zutenak. Burutzapen agindu horien xedea akats horiek zuzentzea eta hiri inguru dotorea eskuratzeko izango da, horrek guztiak herri apainduraren hobekuntzan duen garrantzia kontuan hartuta.

Oinarrizko abiaburu moduan, burutzapen agindua egoeraren eta zio horien erantzukizuna duen norbanako edo erakundeari zuzenduko zaio.

Talde etxebizitzaren kasuetan erkidego ukituari edo ukituei zuzenduko zaizkie.

#### **Burutzapen aginduak betetzeko epeak**

1. Burutzapen aginduak betetzeko epeak horien premiaren arabera izango dira.
2. Hurre-hurreko arriskua dagoelako presazko epea ezartzen denean, epea 12 ordukoa izan daiteke jakinarazpena egiten denetik, edo bestela Korporazioak berak zuzenean beteazazi ahal du agindua.
3. Jakina, agindua osasunkortasunarekin zerikusia duten arrazoiengatik ematen denean, ohiko epea 30 eta 60 egun bitartekoa izango da, egin beharreko lanen garrantziaren arabera.
4. Apainketa eta estetika arloko beharrezkoak betetzeko egiten diren obrak burutzeko eperik laburren 45 eguneko izango da.

#### **280. artikulua.—Lizentziaren nahitaezkotasuna eta tasa eta zerga ordaintzeko nahitaezkotasuna**

1. Ezin da «aurretik lizentzia behar duten ekintzen sailkapena» deritzen artikuluko eraikintza edo lurzoruaren erabilerarik hasi, berdin da publiko edo pribatua izan, aurretik bidezko udal lizentzia eskuratu gabe; lizentzia hori arautegi honetan ezarri den eran eskuratuko da. Halaber, nahitaezkoa izango da bidezko tasak eta zergak ordaintzea, salbu eta burutzapen agindu baten ondorio denean (Lurzoruari buruzko Legearen 244. artikuluan ezarri den prozeduraren arabera) edo pertsona eta ondasunen arrisku fisikoa ezabatzeke premiazko errauspen edo obrak direnean, kasu horretan udal teknikariak edo ondore horretarako alkateak izendatuko duenak izenpetuko duen txostenari ekin ondoren.

2. Edozein kasutan, lizentzia jabetza eskubidea gordeta eta gainontzekoen artean kalterik eragin gabe eman dela ulertuko da.

3. Udalak eman dituen lizentziak, eskuratzeko aurkeztu diren agirien artean atzipe edo iruzurra egin dutenean, eskumena duen agintaritzak horien ondoreak eten egingo ditu eta lizentziaren emakidadunak ezin izango du inolako gaitz edo kalteordainik eskatu; Udalak, horrelakoetan, ondore horietarako dauden legezko eskubide guztiak gordeko ditu.

4. Oro har, lizentzietan, salbu eta erabilera aldatzeko eta lehen erabilerarako direnean, hurrengo artikuluetan obra lizentzia deritze.

5. Tasak eta zergak Udalak, eta behin-betiko onespina eman dion bidezko administrazio organoak, ondore horietarako onetsi duen zerga ordaintzarekin bat etorriko dira. Gutxienez ondore horietarako eraikin mota edo kategoria bakoitzarentzat ezarri diren gutxienezko prezioak beteko dituzte, obraren kostuaren benetako aurrekontua gora-behera izango da.

6. Pertsona batek beste baten izenean obra lizentzia eskatu duenean, instantziarekin bat ordetzapen hori benetakotzen duen notarioaren ahalmen legeztatua aurkeztuko du.

7. Horrela egin ezean, eskubidea eskatzailearen izenean luzatuko da eta udal agintaritzaren aurrean obraren burutzapenean sor daitezkeen inguruabarren erantzuna izango duela erasoko da eta, baldintzak horiek direla, obra hasiko balitz, erantzukizun hori onartzen duela ulertuko da. Erantzukizun hori zerga ordenantzan ezarri diren tasa eta zergak ordaintzeko era izango da.

#### **281. artikulua.—Aurrez lizentzia behar duten ekintzen sailkapena**

Lurzoruari buruzko Legearen testu bateginaren 242. artikuluekin eta Hirigintzako Disziplinari buruzko Araudiaren 1. artikuluekin bat jarraian adieraziko diren eraikintza ekintzek eta lurzoruaren erabilera guztiek udalaren lizentzia beharko dute:

g) La invasión por cierres de fincas o por cualquier elemento físico de aquellos espacios que por cualquier circunstancia, sean de uso y dominio público, originarán la posibilidad de dictar una orden de ejecución a fin de restablecer la situación jurídica de dicho espacio.

h) La ejecución de obras que supongan la alteración de las redes de servicio público y además obras de los Proyectos de Urbanización, efectuadas sin licencia previa y que según informe de los Servicios Técnicos Municipales supongan un deterioro de aquéllas, originarán la necesidad de su reposición al estado original y al efecto se podrá dictar orden de ejecución.

i) La existencia de cierres de finca en Suelo Urbano que no cumplan la normativa al efecto y que no hayan sido definidos a través de un Plan Especial o Estudio de Detalle, y que imposibiliten la continuidad de una comunicación fluida de vehículos y peatones que circulan libremente por sus áreas circundantes, así como la de los muros sin continuidad y sin trabazón en su cabeza que aparecen como residuos o vestigios de antiguos muros de perímetro cerrado, los elementos que dificultan el tráfico de vehículos o peatones en áreas de Suelo Urbano y que no obtuvieron licencia expresa para su ejecución previa presentación de Proyecto Técnico al efecto, originarán la necesidad de ser dictaminadas órdenes de ejecución, tendentes a su supresión y a permitir un decoroso entorno urbano, con la mejora que ello supone del ornato público.

Como principio fundamental, la orden de ejecución irá dirigida al particular o entidad responsable de la situación y de las causas que la originan.

En el caso de vivienda colectiva se dirigirá a la Comunidad o Comunidades afectadas.

#### **Plazos para la ejecución de las órdenes de ejecución**

1. Los plazos para la ejecución de las órdenes dependerá de la urgencia de las mismas.
2. En los casos de urgencia por peligro inminente, el plazo podrá ser de doce (12) horas desde la comunicación, o ser ejecutado directamente por el Ayuntamiento.
3. Normalmente en los casos en los que el origen se ha motivado por la salubridad, el plazo normal oscilará entre los treinta (30) y sesenta (60) días, dependiendo de la magnitud de las obras a realizar.
4. Las obras cuyo origen esté motivado por situaciones de ornato y estética tendrán un plazo mínimo de cuarenta y cinco (45) días para su ejecución.

#### **Artículo 280.—Obligatoriedad de licencia y pago de impuestos de construcción**

1. No podrá darse principio a ningún acto de edificación y uso del suelo ya sea público o privado, de los indicados en el artículo titulado «Clasificación de los actos sujetos a previa licencia» sin obtener antes la correspondiente licencia municipal en la forma prescrita por la presente Normativa, y haberse abonado el impuesto correspondiente, salvo que esté amparada en una orden de ejecución (se tramitan siguiendo el procedimiento del artículo 244 del TRLS) o se trate de derribos y obras de urgencia que eliminen un peligro para la integridad física de personas o bienes, previo informe de su necesidad suscrito por el Técnico municipal o el designado en su defecto por el Alcalde.

2. En cualquier caso, la licencia se entenderá concedida dejando a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

3. Aquellas licencias concedidas por el municipio, en las cuales haya existido en la documentación presentada para su obtención dolo o engaño, serán inmediatamente suspendidas en sus efectos por la autoridad competente sin que el concesionario de la licencia pueda reclamar ningún daño o perjuicio, reservándose el Ayuntamiento todos los derechos legales al efecto.

4. En general, las licencias, excepto las de cambio de uso y primera ocupación, se denominarán, en los próximos artículos, licencia de obras.

5. Los impuestos se corresponderán con la Ordenanza Fiscal aprobada al efecto por el Ayuntamiento y el Organismo administrativo competente para su aprobación definitiva. Deberán cumplir como mínimo con los precios mínimos establecidos al efecto para cada tipo o categoría de edificación, sin perjuicio del presupuesto real del costo de la obra.

6. Cuando una persona solicitase a nombre de otra una licencia de obras, presentará con la instancia poder notarial legalizado que acredite su representación.

7. De no hacerlo así, se extenderá a favor del firmante de la solicitud, haciendo constar que será responsable ante la Autoridad municipal de cuantas incidencias ocurran en la ejecución de la obra, y si en tales condiciones se diera principio a la obra, se entenderá que acepta tal responsabilidad. La responsabilidad se extenderá también a la obligatoriedad del pago del impuesto de la Ordenanza Fiscal.

#### **Artículo 281.—Clasificación de actos sujetos a previa licencia**

De acuerdo con el artículo 242 del TRLS y el artículo 1 del Reglamento de Disciplina Urbanística, estarán sujetos a previa licencia municipal los actos de edificación y de uso del suelo que a continuación se indican:

**1. Eraikintza ekintzak****a) Urbanizazio obrak**

— Lur mugiketa obrak burutzea: lurrerauzketak, berdinketak, indusketak betelanak eta abarreak, salbu eta ekintza horiek urbanizazio, eraikuntza zein instalazio egitasmo onetsi edo baimendu baten barruan burutu beharreko obra gisa zehazturik eta programaturik daudenean.

— Orubeak eta lurzatiak ixteko obrak eta hauen aldarazpenak.

— Herri bidetik ikus daitezkeen propagandako kartelak ipintzeko obrak.

— Onetsitako antolamendu plan baten esparruan dauden lurretako arboladietan arbolak moztea.

**b) Eraikintza obrak****1. Oin-plano berrikoak:**

— Era guztietako oin-plano berriko eraikin eta instalazioen eraikuntza obrak.

— Lurpeko aparkaleku, industri jarduera, merkataritzako jarduera edo lanbide jarduera eta herri zerbitzuak edo zorupeak izan dezakeen beste edozein erabilera.

**2. Artapen eta zaharberrikuntzakoak:**

— Egon dauden era guztietako eraikin edo instalazioetan egiten diren aldarazpenerako edo zaharberrikuntza obrak, baldin eta egiturak ukitzen badituzte.

— Egon dauden era guztietako eraikin edo instalazioetan egiten diren zabalkuntza obrak.

— Eraikinen barruko taxuketa aldatzen duten obrak, horien erabilera gora-behera.

**3. Errauspenak:**

— Lurzoruari buruzko Legearen 136. artikuluan aipatu diren behin-behineko obrak.

**282. artikulua.—Lurzoruaren eta eraikinaren erabilera ekintzak****1. Lurzoruaren erabilerak:**

— Hirigintzako lurzatiak.

**2. Eraikinen erabilerak:**

— Eraikinen eta oro har instalazioen lehen erabilpen edo atzematea eta geroragoko erabilera bakoitzaren aldarazpena.

— Lokalen erabilpena, lokalen gaikuntza deitzen zaien obrak egin ondoren.

— Egon dauden eraikin eta instalazio mota guztien lurzoruaren erabilpena.

— Lurzoruari buruzko Legearen 136. artikuluan aipatzen dituen behin-behineko erabilerak.

Aurretiazko udal lizentzia behar duten ekintzen zerrenda hori ez da zehatza izan eta adierazi behar da ez direla ekintzok hori bukatzen eta argi gera bedi udalerrriaren itxura fisikoaren aldarazpen edo aldaketa ekarriko duten eraikuntza eta lurzoruaren eta zorupearen erabilera ekintza guztiek lizentzia behar dutela; halaber, lizentzia beharko dute honako arautegi honen garapen bezala tramitatu edo onetsiko diren plan, arau eta ordenantzek aipatzen eta eskatzen dituztenak

**283. artikulua.—Lizentzia moten eta aurretiazko emakidari lotuta dauden ekintzen arteko harremanak**

1. Eraikuntza proiektu guztietan, memorian, zehaztu egin beharko da lokal bakoitzaren erabilera.

2. Obren burutzapenaren ondorioz erabilerak ondo zehaztu gabe dituen lokalen bat sortuz gero, edota gaikuntza edo akabera zehatzik ez duten lokalak baldin badaude —salbu eta kanpoaldeko itxura, kasu batzuetan behin-behiekia izan baitaiteke, hau da, zolaketa, sabaiaren zarpeatua eta eraikinaren hartuneen guneak— ezin dira gaitu harik eta lokalaren gaikuntzarako burutzeko obra lizentzia eman arte eta, horren ostean, lokalaren erabilera zehatzerako lehen erabilera lizentzia.

3. Lehen erabilerarako lizentzia, edo eraikinaren erabilera edo horren aldarazpenerako lizentzia aldarazpen obren burutzapenerako lizentziaren baldintzak betetzearen pentzutari eta kokaeraren arabera baimenduta dauden erabilerei egokitzearen pentzutari dago; halaber, bidezko arautegi orokor eta zehatza bete beharko ditu.

4. Eraikin baten dauden lokalak indarrean dauden erabilera ez den beste batekin erabili nahi izanez gero —inolako obratik egin gabe—, edo eraikuntza obran eskatu eta eman den erabilera ez den beste bat, erabileraren aldaketa lizentzia eskatu beharko da.

**284. artikulua.—Eraikin eta instalazioetako obrak****a) Eraikuntza obrak**

1. Eraikuntza obrak dira lehen egon ez diren eraikinak eratzen dituztenak edo, nolabait, arau hauek onetsi diren unean izan duten egoera aldatzen dutenak, berdin da beren beregi soto solairuak dituzten eraikinak izan edo solairuak izan gainean, hots, bai sotoak eta bai solairuak.

**1. Actos de edificación****a) Obras de urbanización:**

— Movimientos de tierras tales como desmontes, explanación, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización de Edificación aprobado o autorizado.

— El cierre de solares y parcelas y sus modificaciones.

— La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

— La corta de árboles integrados en masa arbórea que estén enclavados en terrenos para lo que existe un Plan de Ordenación aprobado.

**b) Obras de edificación:****1. De nueva planta:**

— Las obras de construcción de edificaciones e instalaciones de todas clases, de nueva planta.

— Las edificaciones e instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamientos, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

**2. De reforma y conservación:**

— Las obras de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

— Las obras de ampliación de edificios e instalaciones de todas clases existentes.

— Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

**3. De demolición:**

— Las obras que hayan de realizarse con el carácter provisional a que se refiere el artículo 136 del TRLS.

**Artículo 282.—Actos de uso del suelo y la edificación****1. Usos del suelo:**

— Las parcelaciones urbanísticas.

**2. Uso de la edificación:**

— La primera utilización u ocupación de los edificios e instalaciones en general, o la modificación de cada utilización.

— La utilización de locales tras las obras de habilitación de locales.

— El uso del suelo sobre las edificaciones e instalaciones de todas clases existentes.

— Los usos de carácter provisional a que se refiere el artículo 136 TRLS.

La anterior relación de actos sujetos a previa licencia municipal, se relacionan sin ánimo de exhaustividad, no suponiendo lista cerrada y quedando definida la necesidad de licencia para cualquier acto de edificación y uso del suelo que suponga modificación o transformación del aspecto físico del municipio, de la utilización de su suelo y subsuelo, y para aquellas obras que señalen, hagan referencia o indiquen los Planes, Normas y Ordenanzas que se tramiten o aprueben como desarrollo de la presente Normativa.

**Artículo 283.—Relación entre los distintos tipos de licencias y los actos sujetos a su condición previa**

1. En todos los proyectos de edificación deberá especificarse en la memoria el uso concreto de cada uno de los locales.

2. En el caso en que la ejecución de las obras origine locales sin una definición concreta de los usos a que se van a destinar, y que no posean una habilitación o acabado específico —salvo el cierre exterior, que puede ser en algunos casos provisional, solado, raseo de techo y los puntos para la conexión de las instalaciones del edificio—, no podrán habilitarse sino una vez concedida la licencia de obras de ejecución para la habilitación del local y, posteriormente, la licencia de primera utilización para el uso concreto del local.

3. La licencia de primera utilización o modificación del uso del edificio estará condicionada al cumplimiento de las condiciones de la licencia de ejecución de las obras de modificación y a su adecuación a los usos permitidos según su localización y a la Normativa General y específica que le corresponda.

4. Caso que se desee utilizar —sin realizar obras de ningún tipo— los locales de un edificio con uso diferente al vigente, o bien al solicitado y concedido en la licencia de obras de edificación, se deberá solicitar la licencia de cambio de uso.

**Artículo 284.—Obras de edificación e instalaciones****a) Obras de edificación**

1. Obras de edificación son aquellas que constituyen edificios no existentes o modifican de alguna forma los existentes en el momento de la aprobación inicial de las presentes Normas, ya sean edificios constituidos exclusivamente por plantas de sótano, plantas elevadas, o posean plantas tanto de sótano como elevadas.

2. Eraikintza obren barruan egon dagoen eraikinaren desagertze fisiko eta, beraz, aldarazpena ekarriko duten obrak sartuko dira, berdin da desagertze hori osa edo partziala izan; obra hauek eraikinaren errauspenak dira.

3. Eraikintza obren sailkapenaren barruan, bidezko ezaugarriak konbentzionalak, halaber, aparkaleku erabilera izango duten eraikintza obren burutzapenak daude —lurpekoak, soto solairuetan—, edo industri, merkataritza edo lanbide erabilera, herri zerbitzua edo zorupean gara daitekeen beste edozein erabilera.

4. Burutzapenerako lur mugimenduak edo eraikita dagoenaren errauspen partzialak behar dituzten eraikintza obra mota guztiek, aurkeztu behar dituzten agiriaren artean eta dagokien obra lizentzian, beren beregi errauspen obraren eta lurren mugimendu obren izaera izango dute, bidezko obrari dagozkion ezaugarriekin.

#### b) Instalazioak

1. Arautegi honen ondoretarako, instalazioa da ideia baten arabera batu eta bildu diren elementuen multzoa, baldin eta batez ere industriari edo zerbitzuei lotuta dauden jarduerak egiteko bideak ematen badituzte eta, gehienetan, zerupeko esparru itxia edo instalazioaren kontrol eta mantentzearako arduradunentzat bizigarria eratzten ez dutenean.

2. Hizkera arruntean «saneamendu, estolderia, herri argi, elektrazenergia sare, hor hornidurarako eta banaketarako sare, telefonia sare» eta abar direnak ez dira benetako instalaziotzat jotzen honako arau hauen ondoretarako, «urbanizazio obra proiektu» edo «eraikintzaren urbanizazio osagarriaren obra proiektuen» izeneko burutzapenaren ondorio diren obren elementu edo osagarriak baino.

3. Halaber, ez dira instalaziotzat joko legezko arautegi honen ondoretarako lurraldearen egitura orokor eta organikoaren sistema orokorren multzoa eratzten duten elementuen multzoa.

#### 285. artikulua.—Urbanizazio obrak

1. Urbanizazio obrak dira Urbanizazio proiektuen arautegian definitu diren urbanizazio elementuen osagarri bat edo batzuk ex novo edo oinplanta berrikoak eragiten dituztenak; halaber, multzo honetakoak dira egon dauden urbanizazio elementuak edozein eratan zabaltzen edo artatzen dituztenak.

2. Arbola multzoak ere urbanizazio proiektuen barruan sartzen dira, baita lurzatiei ixurak, orubeetan hesiak jartzea, lurren mugimenduak, isurtzeak, herri bideetatik ikusten diren propaganda kartelak, hiriko altzariak eta, oro har, inguru fisikoak transformatzeko dutenak eta eraikintza edo/eta instalazio obren barruan kaka ezin direnak.

#### 286. artikulua.—Obra txikiak

Obra txikiak dira, besteak beste, eraikin eta instalazioetan egiten diren eraldaketa eta artapenerako obrak, hau da, akaberako eraikintzako elementuak baino ez dituztenak ukitzen, eta ez egiturazkoak.

Atal honen barruan daude:

1. Eraikinaren barruko taxuketa aldatzen duten obrak, beti ere piezen ezaugarri higienikoak ukitzen ez dituztenean eta barruko banaketaren oin-planoko garapenaren luzeraren %30a baino gutxiago aldarazten ez dutenak.

2. Eraikinaren kanpoko itxura zaharbertitzeko egiten diren obrak, beti ere egiturarenak diren elementuak ukitzen ez dituztenean edo herri bideetan aldarmiorik jartzea eskatzen ez dutenean.

3. Orube eta lurzatiei ixura, alde zuzeneko lerrokadurak eskatuta.

4. Olanak, errotuluak eta kartelak instalatzea.

5. Arauetan urbanizaziorako multzoan sailkatu diren finken ixurak.

6. Jatorrizko lurrean goibeheak eragiten dituzten lur mugimenduak, baina aipatu goibehe hori metro batera heltzen ez denean.

7. Mindazuloa atontzeko edo hobetzeko obrak eta eraikinaren saneamendu propioarekin lotzea.

#### 287. artikulua.—Eraikintza proiektuen urbanizazio osagarria

1. Orubeak ez diren lurzatiei eta inolako poligono edo burutzapenuneetan sartuta ez daudenetan, edota horrela zehazten duenean burutzapenunearen edo poligonoaren arautegiak, eraikinaren inguruar buruzko urbanizazio obren eraskina egin beharko da, zertarako eta egon dagoen urbanizazioa burutzapen hutsarekin araupetu eta koordinatzeko eta sare orokorrekin eta jardunbidean dauden bideekin bat egiteko.

2. Dentro de las obras de edificación, se incluyen también aquellas obras que suponen la modificación por desaparición física de un edificio existente, ya sea total o parcialmente; estas obras son las obras de demolición de las edificaciones.

3. Dentro de la clasificación de las obras de edificación, participando de las características que les correspondan, se encuentran igualmente la ejecución de las obras de edificación subterránea —en plantas de sótano—, dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

4. Todos los tipos de obras de edificación que precisen para su ejecución movimientos de tierras y derribos parciales de lo ya construido, incluirán en su propia documentación y en su licencia de obras la consideración implícita de las obras de derribo y movimiento de tierras precisas de ejecutar sin necesidad de definición expresa al efecto, con la consideración exclusiva del tipo de obra correspondiente.

#### b) Instalaciones

1. A efectos de esta Normativa, por instalación se entiende el conjunto de elementos que situados y ensamblados conforme a una idea conjunta, posibilitan la realización de una serie de actividades predominantemente industriales o de servicios, sin que normalmente originen un espacio cerrado de la intemperie y habitables similares para los encargados del control y mantenimiento de la instalación.

2. Las normalmente denominadas «instalaciones de las redes de saneamiento, alcantarillado, alumbrado público, red de energía eléctrica, red de abastecimiento de agua y de distribución, red de telefonía, etc.», no se consideran como instalaciones a los efectos de estas Normas, sino como componentes o elementos de los «Proyectos de obras de urbanización», de las «Obras de urbanización» y de las obras derivadas de la ejecución de los denominados «Proyectos de obras de urbanización complementario al de edificación».

3. Tampoco se considerarán como instalaciones a los efectos de esta Normativa aquel conjunto de elementos que constituyen o forman alguno de los Sistemas Generales de la estructura general y orgánica del territorio.

#### Artículo 285.—Obras de urbanización

1. Obras de urbanización son aquellas que originan ex novo o de nueva planta alguno o algunos de los componentes de los elementos de urbanización definidos en la Normativa de los Proyectos de Urbanización, o reforman, amplían o conservan.

2. Se incluye el arbolado como un elemento más de los Proyectos de Urbanización, así como los cierres de parcelas, vallado de solares, movimiento de tierras, vertederos, carteles de propaganda visibles de la vía pública, mobiliario urbano y en general todas aquellas que suponiendo una transformación del medio físico no tienen cabida en las obras de edificación y/o instalación.

#### Artículo 286.—Obras menores

Se consideran como tales, entre otras, aquellas obras de reforma y conservación en edificaciones e instalaciones que únicamente afectan a elementos constructivos de acabado y no estructurales, no supondrán cambios en ningún caso en cuanto volumen y uso.

Se incluyen en este apartado:

1. Obras que modifiquen la disposición interna de los edificios siempre que no afecten a las condiciones higiénicas de las piezas y no modifiquen más del treinta (30) por ciento de la longitud de desarrollo en planta de la distribución interior.

2. Las obras de modificación del aspecto exterior de los edificios, siempre que no afecten a elementos estructurales, y no sean visibles desde la vía pública o no precisen de instalación de andamios sobre la vía pública.

3. El cerramiento de solares y parcelas, previa petición de alineaciones.

4. Instalación de toldos, rótulos y carteles.

5. Los cierres de fincas en terrenos clasificados por las Normas como no urbanizables.

6. Los movimientos de tierras que den origen a desniveles con el terreno original inferiores a un (1) metro.

7. Las obras de acondicionamiento o mejora del pozo séptico a red de saneamiento propio del edificio.

#### Artículo 287.—Complemento de urbanización de los proyectos de edificación

1. En aquellas parcelas que no sean solares, y que no están incluidas en ningún Polígono o Unidad de Ejecución, o cuando así lo especifique la Normativa de la Unidad de Ejecución o Polígono, el Proyecto de Edificación deberá incluir un anexo de Obras de Urbanización del entorno de la edificación, a fin de regularizar y coordinar la urbanización existente con la mera ejecución y enlazar con las redes generales y viarias que estén en funcionamiento.

2. Urbanizazio proiektu eta obrentzat arautegi honetan ezarri diren gutxieneko baldintzei buruzko erabaki bat idatzi beharko da.

3. Ondore horretarako udalaren zerbitzu teknikoari urbanizazio obra horiek egingo diren aldea mugatzeko eta lan horiek burutzeko baldintzak ezartzeko eskatuko zaie.

4. Eraikintza lizentzia emateko derrigorrezko baldintza izango da eraikintza proiektuan aipatu den urbanizazio obraren eraskina sartzea.

5. Tramitazioaren ondoretarako zuzen daitekeen errakuntza izango da eraskin hori ez sartzea.

6. Urbanizazio osagarria burutzea eta eraikinaren burutzapena aldi berean beharko dira egin eta hori guztia era egokian bukatzea nahitaezko baldintza izango da lehen erabilera lizentzia eskuratzeko.

### 288. artikulua.—Lehen erabilerarako edo erabilera aldatzeko lizentzia

1. Oin-plano berriko establezimenduak edo eraikinak erabiltzeko, daudden eraikuntzen barne egitura aldatzea edo erabilera aldaketa eskatu denean, beti eskuratu beharko da lehen erabilerarako edo erabilera aldaketarako lizentzia.

2. Lehen erabilerarako lizentziaren emakidarako eta udalaren ur hornidura eta saneamendu sareekin lotunea egiteko, aurretiaz dagokion urbanizazioa egin eta lizentziak ezarri dituen konpromiso eta baldintza guztiak bete beharko dira.

3. Lehen erabilerarako edo erabilera aldaketarako lizentzia emateko bete beharko diren baldintzak hauek dira:

a) Lehen erabilerarako edo erabilera aldaketarako lizentzia eskatzea, kasu honetan ere, obra lizentzia eskuratzeko adierazi diren formalitateekin.

b) Ziurtagiri bat, obraren zuzendaria izan den teknikariak sinatuta eta haren lanbide elkargoaren ikusonespenarekin, obra proiektuarekin bat egin dela eta lizentzian eta ordenantzetan ezarri direnak bete direla adierazten duena.

c) Eraikintza edo urbanizazio obretan onetsi egon diren aldarazpenak egon baldin badira, behin-betiko aldarazpen horien plano ikusonetsiak.

d) Behin-betiko kalifikazioaren agiria, babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, edo bizigarritasun agiria, eraikin edo etxebizitza askeen kasuan.

e) Obra berriaren aitortzea, erregistratua; agiri horretan ondoko hauek azalduko dira:

1. Lurraren zein zati geratu den eraikinari lotuta eta, beraz, eraikinarengandik aske lurzatu edo saldu ezin dena.

2. Herri erabilera eta jazaritza igaro den zatia.

3. Notarioak protokolorizatu duen plano erantsia, lurzatiaren planoaren topografia eta eskala berarekin, hasierako lurzatiak ukitzen dituen aldean jabetza araubidea zein den zehaztuz. Azalera guztien baturak eta lizentzian emakidan ezarri denak eta proiektuaren hasierako planoan ezarritako dagoenak bat etorri beharko dute.

f) Azken ikuskapenaren bisitaldia egin eta, gero, udal arkitektoaren txostena.

g) Ur, elektrizitate eta telefonia zerbitzuak zuzkitzen dituzten baltzuen dokumentazioa, non hartunekiko eta bidezko sareekiko adostasuna adieraziko baituten.

h) Lizentziari dagokion udal zergaren likidazioa eta abonamendua.

### Lizentziaren tramitazioa eta zaintza

